

EUSKAL HERRIAREN ASKATASUNAREN ALDE,

7 urte iragan dira « Denak gira euskal gazteria » aldarri eginez, Aitzina gazte antolakundea aurkeztu genuenetik. Gazte ezkertiar eta abertzaleak elkartzeko xedearekin sortu zen Aitzina. Borroka eta antolakuntza tradizio luze baten onena jaso, lekukoari heldu eta Euskal Herrian garai berriak biziko zituzten belaunaldiek askatasunaren bidea urratzeko tresna bat izan zezaten jaio zen.

Orain dun/k tenorea prozesuan eskualdez eskualde eztabaida mamitsuak eman berri genituela ekin genion lanari. Bilkurak, txandak, kolaketak, manifestaldiak, ekintzak, harremanak, ardurak, ilusioa, huts egiteak eta hain garrantzitsuak diren garaipen tikiak... Hitz batean : Militantzia. Elkarrengandik ikasi eta ahaldundu ginen ; determinazioz eta konbentzimenduz.

Frantses Estatuari ikatza ! Bide seinale asimilatzaileei ez ! Kapitala garbitu ! Herria mugarri ! Begipean zaituztegu ! Gazteok Zuekin ! Lan, bizi eta ikasteko Guk Euskal Herria ! Gazte Akelarrea. Bozkatu aske izateko ! Iragana oroitu, oraina irauli, geroa irabazi ! G7 ez ! Udaberri Feminista. Orain presoak ! Ateak Ideki ! Gazte Topagunea. Euskaraz bizi eta ikasi !

Hamaika aldarri eta ekimen izoztu dituzten argazkiei eta gugan iltzaturik ditugun bizipenei so egiten diegu egun, harrokeriarik gabe, harrotasunez. Ez da erreza izan eta ez da nehoiz erreza izanen. Baina ororen buru, borrokak merezi du.

ETAren jardun armatuaren bukaeraren ondotik, krisi ekonomikoaren ondorioak, Euskal Elkargoaren sorrera, ezkerreko abertzaleen bozetako garaipenak, Luhuso eta Arnaga, Covid-19aren pandemia eta Euskal Herriaren historian hizki larritan idatziko diren beste hamaika gertakari bizi izan ditugu urte gutian. Gazte ezkertiar eta abertzaleok ez gara aldaketa hauen ikusle soil izan, parte hartzaile aktibo baizik. Euskal Herriaren geroa ez ezik, oraina ere bagarelako. Itzaleko lanean aritu gara, eskuzabaltasunez. Iraultzarako nahikeriak mugitzen gaituen ber, argi dugu gure helburueta-
ra hurbiltzen gaituen urrats bakoitza ibiliz egiten dela bidea.

Gazte ezkertiar eta abertzale ororen espazioa izateko ezintasuna erakutsi izan du Aitzinak. Gazteriaren baitan engaiatzeko forma eta gai berriak agertu ahala, 2010. hamarkadako militantzia asmatzeko zeregin zailak markatu du gure ibilbidea. Hutsu-neak izan ditugu Hendaiatik Eskiülara eta Bardozetik Urepelera existitzen diren erreallite, problematika eta erronka anitzei erantzuterako orduan. Bide beretik, Frantses eta

Espainiar estatuek inposaturiko muga politiko, fisiko eta mentalak gainditzeko ahalegin indartsuagoa egin genezakeen. Autokritika zintzoa egiten ari gara eta egiten segituko dugu. Irakaspenak atera behar ditugulako batetik ; eta bestetik, euskal gazteriari zor diogulako.

Haatik, akatsak akats, Aitzinako militanteok izandako ausardia goraiatu nahi genuke. Injustizien aurka altxatzeko ausardia, ekintzetan gure gorputzarekin gure ideiak defendatzeko, konfluentzia guneak sortzen entseatzekoa edo feminismitik gure antolakundea ere zeharkatzen duen zapalkuntza patriarkala errotik mozteko ekitekoa...

Abagunea aztertu, egoera barneratu, urte gorabeheratsu hauek baloratu eta heldutasunez, uneak eskatzen digun erabakia hartu dugu kolektiboki ; Aitzina gazte antolakundearen ibilbideari bukaera ematea. Argi dugu, azken boladan Aitzinak jadanik ez ziela behar bezalako eraginkortasunez erantzuten euskal gazteri eta herri gisa ditugun erronkei. Gazte antolakunde bat desagertzera doan arren, haria ez da etengo. Gure egiten dugu gazte esparrutik Euskal Herriaren askapen prozesuari ekarpena egiteko ardura historikoa. Hala, hilabete batzuetako epean, beharrezkoak diren gogoeta, harreman eta eztabaidei bide emanen diegu, indarrak bildu eta euskal gazteriak tresna berriak sor ditzan.

Aitzinaren parte, bidelagun eta burkide izan zaretenoi esker berezia helarazi nahi dizuegu. Gazte mugimenduan sistemari hortzak erakusten dizkiozuen gazteei, « Gure oraina borrokan da » oihu egiten duzuen Ernaiko kideei, Euskal Herri burujabearen oinarri materialak eraikitzen ari zareten herrigintza proiektuetako militanteei, Korsikako, Herrialde Katalanetako, Okzitaniako eta Britainiako lagunei, karrikan gurekin banderola beraren gibelean egon zareten guziei... Eta nola ez, bizitza osorako ezinbesteko militanteak izanen diren atzoko eta egungo Aitzinako kideei.

Idea ezkertiar, abertzale, feminista eta ekologistak jendartearen gero eta sektore gehiagorengana hedatzen ari diren honetan, Ipar Euskal Herrian nehoizko baldintzarik onenak ditugu aipatutako askapen prozesuan aitzinapausoak egiteko. Bada gazteria : ikasle mugimenduan, feminismitik jendartea iraultzen, amalurra biziartzeko lehian, kulturgintzan eta sorkuntzan, besta alternatiboen antolakuntzan, elikadura burujabetza ereiten, euskaldunon eskubideak defenditzen eta euskaraz ikasten.... Bada bidea : Independentzia, sozialismoa eta feminismoaren bidean, beti Aitzina !

BETI AITZINA!

